



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **UDALBATZAK 2015EKO IRAILAREN 24AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA**

### **BERTARATUAK:**

Mikel Agirrezabala Ezkurdia  
Miren Itziar Arratibel Imaz  
Jesús Peñagarikano Labaka  
Arkaitz Fraile Quijera  
Hanot Karrera Amondarain  
Irati Ozaita Azpiroz  
Maria Iciar Jauregui Huarte  
Juan Luis Cid Conde  
Victoria Rodriguez Feloaga  
Maria Cristina Goya Amiama  
Eleuterio Sanchez Garcia

### **BITARTEKO IDAZKARI :**

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

*Ibarran, bi mila eta hamabosteko irailaren hogeita lauan arratsaldeko zazpitan udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

*Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:*

- 1.- 2015eko uztailaren 29an egindako ohiko udalbatza bilkuraren aktaren onarpena.**
- 2.- 220/2015tik 283/2015ra alkate dekretuak jakinaraztea**
- 3.- Administrazio Auzietako 1 Zko Epaitegiaren 174/2015 sententziaren betetzea**
- 4.- Tolosako HAPO-aren Tolosana Igerondo 15.1 azpieremua hiritartzeko proiektuari (Ibarrako lurretan eragina duena) adostasuna adierazi.**
- 5.- BILDUK aurkeztutako mozioa nazioarteko elkartasunaren ingurukoa**

2015/09/24



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## 6.- Galde-erreguak

### **LEHENENGOA:**

#### **2015EKO UZTAILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA**

Irakurri da 2015eko uztailaren 29ko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin ( 6 BILDU eta 5 EAJ-PNV ) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2015eko uztailaren 29ko ohiko bilkurako akta.

### **BIGARRENA:**

#### **220/2015TIK 283/2015RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA**

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2015eko uztailaren 29tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 220/2015tik 283/2015ra.

Jakinaren ganean gelditu da Udalbatza

### **HIRUGARRENA:**

#### **ADMINISTRAZIO AUZIETAKO 1ZKO EPAITEGIAREN 174/2015 SENTENTZIAREN BETETZEA**

2015ko irailaren 4an Administrazioarekiko Auzietako 1 zk.ko epaitegiak 174/2015 sententzia erabaki zuen. Sententzia honen arabera Estatuko Administrazio Orokorrak 2013ko apirilaren 11an Ibarra Udalbatzak harturiko erabakiaren aurka jarritako errekurtsua aztertzen du. Bertan, 2013-2015 urte bitartean Ibarra Udalak emango dituen diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zen.

Epai honen arabera, 887/2006 ko Errege Dekretuko 12. artikulua urratzen du plan honek zehaztasun gutxi duelako edo ez dituelako beharrezko gutxiengoak betetzen. Ondorioz Estatuko Administrazio Orokorrak jarritako errekurtsua onartzen du eta plana indargabetzen du zuzenbidezkoa ez dela azalduz. Ez da inolako kosturik ezartzen auzi honetan Ibarra Udalaren aurka.

2015/09/24



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

### ERABAKITZEN DU

**LEHENEGOA:** 2013-2015 urte bitartean Ibarra Udalak emango dituen diru-laguntzen plan estrategikoa indargabetzea 2015ko irailaren 4an Administrazioarekiko Auzietako 1 zk.ko epaitegiak 174/2015 sententziak esandakoa kontutan hartuz.

**BIGARRENGOA:** Udaleko teknikariei Dirulaguntzak emateko Plan berri bat egin dezatela eskatzea, ondoren Udalbatzak onartuko duena.

**HIRUGARRENGOA:** Erabaki honen berri eman Administrazioarekiko Auzietako 1 zk.ko epaitegiari eta Egia Kolektiboko abokatuei.

### LAUGARRENA

### TOLOSAKO HAPO-AREN TOLOSANA IGERONDO 15.1 AZPIEREMUA HIRITARTZEKO PROIEKTUARI (IBARRAKO LURRETAN ERAGINA DUENA) ADOSTASUNA ADIERAZI

Tolosako alkate Olatz Peon and.ak hasierako izaeraz onartu du, uztailaren 22ko 2015/1242 alkate dekretu bidez, 15.1 Tolosana Igerondo azpijeremua hiritartzeko proiektua aldatzea.

Aldaketaren arrazoia da, URAken eskaera kontutan izanik, kaleko aldapak berrikusteko beharrezkoa dela garajeetan sartzeko tokia altxatzea eta ondorioz honek hiritartu beharreko eremua handitzen du. Hasierako onarpenaren ebazpenarekin batera Jose Mari Aseginolaza arkitektoak sinaturiko agiri teknikoa aurkezten da. Hirigintza eremuko azalera Tolosako lurri eragiten die soilik. Halere, Ibarra Udarak 300 m<sup>2</sup> hiritartu behar dira, eta horregatik, Tolosako Udarak Ibarra Udari eskatu dio hilabeteko epean alegazioak aurkeztea edo azken onespena eman dezala.

Ibarra Udak Arkitektoak aurkeztu du egoera honen aldeko txostena baina baldintza batzuk kontutan izatea eskatzen du:

- Eskatzea Tolosako udalari beregain har dezala Ibarra dagoen eremuaren hiritartze mantenimendua, garrantzi txikikoa baita Zumardi Handi parkearen baitan. Ibarra Udalerriari eragiten dion azalera gutxi gorabehera hau da: 40 m<sup>2</sup> espaloi, 130 m<sup>2</sup> bide eta 140 m<sup>2</sup> eremu berdea.
- Behin betiko onartu aurretik kontuan hartzea eskatzen du ondorengo baldintza berezi hauek:

2015/09/24



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- Haur parkea childplay zoladuraren gainean (hareaz bete daitekeen moketa)eremu berdez inguratua eta ihinztigailu batzuekin:
- Haur parkea hobeto mantentzearren eta haurren eremuko zoladura hobetzearren eskatzen dugu: 1,00 m-ko zoladura gogorra jartzea zelaiaren eta haur parkeko zoladuraren artean edo bestela kareharrizko zinta jartzea.
- Horrez gain, haur parkearen inguruan ihinztigailuak berrikustea .
- Sarbidetasunari dagokionez, biribilgune ondoan dagoen espaloia bi aldetan baldosa hidrauliko podotaktila jartzea.

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**LEHENENGOA:** Onartzea Tolosako Udalak Ibarra Udalarari aurkezturiko 15.1 Tolosana Igerondo azpierzemua hiritartzeko proiektua eta ondorioz Ibarra herriarena den azalera ( 40 m2 espaloia, 130 m2 bide eta 140 m2 eremu berdea) Tolosako Udalak hiritartzea. Honako baldintza hauek eskatzen zaizkio Tolosako Udalarari:

- Haur parkea childplay zoladuraren gainean (hareaz bete daitekeen moketa)eremu berdez inguratua eta ihinztigailu batzuekin jartzea
- Haur parkea hobeto mantentzearren eta haurren eremuko zoladura hobetzearren eskatzen dugu: 1,00 m-ko zoladura gogorra jartzea zelaiaren eta haur parkeko zoladuraren artean edo bestela kareharrizko zinta jartzea.
- Horrez gain, haur parkearen inguruan ihinztigailuak berrikustea .
- Sarbidetasunari dagokionez, biribilgune ondoan dagoen espaloia bi aldetan baldosa hidrauliko podotaktila jartzea.

**BIGARRENGOA:** Onartzea Ibarra Udala eta Tolosako Udalaren artean hitzarmen bat sinatzea lur eremu horren kudeaketa eta mantenua hitzartzeko.

2015/09/24



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

HIRUGARRENGOA: Jakinarazi erabaki hau, Hirigintza sailari eta Tolosako Udalari.

### **BOSGARRENA**

### **BILDU KOALIZIOAK AURKEZTURIKO MOZIOA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN INGURUKOA**

**Bildu Koalizioak honako mozioa aurkezten diote Udalbatzari, honek onar dezan:**

### **MOZIOA**

“Elkartasuna da herrien arteko samurtasuna”. Oinarrizko printzipio bat da, gizakiak elkarbizitzarako lege eta araudiak, zuzenbidea eta irizpide etikoak sortu zituenetik. Hala ere, pertsonen nahiz herrien arteko elkartasun eza agerikoa da oso, geure mundu honetako gaitzen aurrean begiak itxi nahi ez dituenarentzat.

Elkartasuna, asmo onen bilduma hotsa izan ez dadin, bi baldintza bete behar ditu: batetik, gaiarekiko sentiberatasuna daukaten gizon-emakumeak antolatu ahal izatea; bestetik, gizarteak antolakunde horiek babestea egoki deritzen tresnekin. Udala da baldintza biak gauzatzearen erantzule, herritarren nahiarekin bat eginik.

Elkartasunezko internazionalismoak herri gisa beste herri batzu babestea du helburu, bidegabekeriaren benetako kausen aurkako borrokan, gurea ere baden borrokan, eta beti ere kanpoko esku-hartzearen aurkako jarreratik. Hori ez da lan erraza nazioarteko egoera gatazkatsuan, non laguntza humanitarioa xantaia politiko eta militar moduan erabiltzen den.

Udal honen aldetik, ezagutzen dugu nazioarteko elkartasunaren alorrean Askapenak 28 urte luzez eramandako jardura politikoa. Brigada internazionalisten bitartez, elkartasun kanpainen bitartez, bertoko nahiz nazioartek topaguneetan bidegabekeriaren aurka egindako salaketan bitartez etab. Askapenak herrien arteko bidezko funtzionamendu demokratikorako ezinbesteko baloreak eman dizkio euskal gizarteari.

Hemen salatu nahi duguna Askapena fiskaltzaren ilegalizazio eskaerari aurre egin beharrean dagoela, Herriak Aske elkartarekin eta Elkar Truke SL-rekin batera; baita bost militanterentzat seina urteko kartzela zigorra eskatzen dutela ere, elkartasun internazionalistaren baitan egindako lanarengatik.

Hori guztia eskubide zibil eta politikoen aurkako beste eraso dela deritzogu. Jokabide horren atzean dauden helburu politiko eta alderdikoiak salatzen ditugu. Askapenaren bitartez eta elkartasun internazionalistaren baitan euskal udalek burututako jardunari zilegitasuna kendu izana gaitzesten dugu. Espainiar fiskaltzaren erabakia Euskal Herriko gatazkaren konponbidean arduragabekeriaz ipinitako oztopoa dela uste dugu.

Horrengatik guztiagatik Udal honek honakoa adierazten du:

- 1.- Elkartasun internazionalista bultzatzeko lanean diharduten erakunde eta pertsona guztiekiko babesa
- 2.- Askapena, Askapeña, Herriak Aske eta Elkar Truke-rekiko nahiz inputatutako bost euskaldun internazionalistekiko elkartasuna
- 3.- Askapena, Askapeña eta Elkar Trukek egiten duten lana ez oztopatzeko exijentzia

2015/09/24



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

4.- Walter Wendelin, Gabi Basañez, Unai Vazquez, Aritz Ganboa eta David Soto euskaldun internazionalisten aurkako epaiketa euren absoluzioaz amaitzeko, dagozkien eskubideak itzultzeko eta zor zaien erreparazioa emateko erreklamazioa.

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

#### ERABAKITZEN DU

**LEHENENGOA:** Onartzea Bildu Koalizioak Udalbatzari aurkezten dion mozioa nazioarteko elkartasunaren ingurukoa.

**BIGARRENGOA:** Ibarra Udalak elkartasun internazionalista bultzatzeko lanean diharduten erakunde eta pertsona guztiekiko babesa eskatzen du.

**HIRUGARRENGOA:** Ibarra Udalak Askapena, Askapeña, Herriak Aske eta Elkar Truke-erekiko nahiz inputatutako bost euskaldun internazionalistekiko elkartasuna adierazi nahi du.

**LAUGARRENGOA:** Ibarra Udalak Askapena, Askapeña eta Elkar Trukek egiten duten lana ez oztopatzeko exijentzia egiten du.

**BOSGARRENGOA:** Ibarra Udalak Walter Wendelin, Gabi Basañez, Unai Vazquez, Aritz Ganboa eta David Soto euskaldun internazionalisten aurkako epaiketa euren absoluzioaz amaitzeko, dagozkien eskubideak itzultzeko eta zor zaien erreparazioa emateko erreklamazioa egitea eskatzen du.

#### **SEIGARRENA:** **GALDE-ERREGUAK:**

Ez dago inolako galde-erregurik.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita bost direnean. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2015/09/24